

IRUÑEAN, BAIONAN ETA DONOSTIAN
IZANGO DIRA AURTEN ERE EKITALDIAK

Udako Euskal Unibertsitateak 15 urte beteko ditu aurten

ARGIA hau kaleratu orduko itxi berriak izango dira XV. UEUrako izena emateko epeak. Lerro hauek idazten ari gareno, iazko marka gainditua dute udatiar euskal unibertsitariak, eta etengabe gorantza zihoan.

Honez gero ohitura bilakatu den bezala, Donostian, Iruñean eta Baionan izango dira aurten ere UEU honetako ekitaldiak. Egutegi aldetik gertuena Iruñeko dugu, uztaialaren 20tik 30era luzatuko delarik, ondoren Baionako letorke (urriaren 26tik 30era), eta azkenik Donostiakoa (azaroaren 16tik 27ra).

Iruñean, sail berririk ez, zaharrak finkatu


Iruñeko saioari dagokionez, aurten burutuko dena iazkoaren antzekoa izango da, esan nahi baita ez dela sail berririk egongo. Aurtengo helburua, iazko hogeitaz sailak behar bezala finkatzea eta sakontzea izango da.

Dena den, horrek ez du esan nahi aurtengo udan Larraonan ezer berririk izango ez denik. Aurreko urteetan Kimikarien I. eta II. Batzar Nagusiak izan baziren, aurten III.a garatuko da bertan, eta horrezaz gain fisikariak kimikariaren ereduia segitu dute, eta haien I. Batzar Nagusia egingo da aurten.

Azpimarratzeko da Alfabetatze Teknikorako ikastaroak ere izango direla. Batetik, IRALEko maisu-maistrak beren lana burutzeko beharrezkoa duten hitzegi bereziaz jantziko dira Iruñean; bestetik gauza berdina egingo dute Administrazioako langileekin. Nonbait, Administrazioarako Alfabetatze Tekniko sail hori nahikoa zabal antolatu dute, udaletxe, diputazio, aurrezki-kutxa eta hainbat erakunde nahiz instituziotatik esero da jendea. Sail hauxe da, antza, eskabide gehienak jaso dituen, matrikula zabaldu aurretik topea jo zutelarik.

Azentoari buruzko Biltzarre Orokorra


Agerpen berezia merezi du aurten lehenengoz antolatu den Azentoari buruzko Biltzarre Orokorra. Euskararen normalkuntz bidean hain garrantzia handikoa den gai honi buruz erizpide batzu erabaki nahiz egingo da berorri. Duela urte l'erd Euskaltzaindiak ere Durangon batzar berezia anto-



Iaz baino jende gehiago espero da UEUko Larraonako egoitzan aurten.

latu zuen, baina han hitz egingakoak hutsean geratu dira, proposamena burutzeko talderik ez zen sortu eta. Halako proposamen bat osatzeko asmoz bilduko da UEU Biltzarre

Orokor hori, behingoz azentoari buruzko arauak finkatze bidean. Berorren zuzendaria Txillardegia izango da, hain zuzen ere gai horri buruzko tesi doktoralari burutua duena.



Hogei sail finkatzera eta behar bezala sakontzera heldu da UEUko iruñeatar saioa.


Txillardegi: «Ez diogu Euskaltzaindiari lekua hartu nahi»

ARGIA.— Azentoari buruzko Kongresua, ideiarene lehen urratsak zertan izan dira?

TXILLARDEGI.— Egia esan, Durangoko bilerean ondoren sortu zen ideia. Durangoko bilera iaz egin ziren, eta azentoari buruzko erabakiren bat hartzea zuten helburu. Beste bilera batzue ere montatu zituen Euskaltzaindiak, hauek Euskal Aholkaria Batuari buruz eta esan behar han ez zela gauza handirik erabaki. Beraz, urtea bete da hain juxtu ere, Durangon ginenak (han zeuden ETB eta Eusko Irratiakoak, AEK, eta euskal munduan gabiltzenak, denetara hogeitamaren bat lagun) pentsatu genuen segitun egin behar genuela beste bilera bat, eta zerbait erabaki, ze Euskaltzaindiak ez bazuen erabakirik hartu nahi edo ez bazuen uste gauzak prest zeudenik holakorik montatzeko, ba bueno, geuk hartuko genuela.

A.— Eta azentoarena erabakitzearen beharra zertan nabaritu duzue, zergatik dago erabaki beharra?

TX.— Uste dut euskararen inguruko munduak eta batez ere euskararen irakaskuntzan mogitzen den jendea kezkatuik dabil, eman dezagun AEK-koak. Orain dela gutxi adibidez "Ele" AEKkoen erribistan idatzi nuen azentoari buruz, eskatu zidaten eta. Hori guztiz beharrezkotzat jotzen dute irakaskuntza mailan eta euskararen munduan dabiltzanak, Euskal Telebista



eta Irratikoak ere askotan esan ohi dute heurak ez dakitela nola jokatu askotan eta horrelakoak. Orduan, edozeinek egin dezake azterketa bat, batez ere linguista bada, eta berehala ikusten da hortik esaten dena, zera hori: "Bilbokoan azentoa edo Bizkaiko azentoa" eta beno, ez da inondik ere Bizkaiko azentoa. Hain zuzen ere Julen Kalzada edo Amuriza bizkaitarrak dira eta ez dute batere azenturik; hori sortu da euskaldunberrien artean.

A.— Ze jende agertuko da handik, agertuko da hizkuntzalari ospetsuren bat ala beste maila batean planteatu da?

Guk deia zabaldu diegu euskal azentoaren munduan zerbait esan dezateken, enfin, jende guztiari. Esate baterako gonbidatu dugu Mitxelena, noski, eta era berean baita Haritxelar eta horrelako jendea, gero euskal filologiaren munduan dabilzenei, bai Gasteizko bai Deustoko eta Donostiako EUTGkoei. AEKkoei, Mari Karmen Garmendiari ere esan zitzaion, neronek esan nien, eta nahi zuten pertsona bidaltzeko, HABEkoak ere gonbidatu ditugu eta beste jende bat ere deitu dugu. Beraz, hogeitabost lagun horiei bidaliko zaie dokumentazio guzti hori, 400 bat folio dira, jendea jakinengainean joan dedin eta orduan, mintegi horretan eguneroko eguneko gaia aztertuko da. Hori fijasurik dago ez dakit merezi duen konkretatzerik.

A.— Batzuk Batzarre horretan Euskaltzaindiari lekua hartzeko saioa ikusiko dute agian.

TX.— Gure asmoa ez da inondik inora Euskaltzaindiari lekua hartzea. Hori harrokeria bat izango litzateke gure aldetik. Gure asmoa da Baionan orain dela hogeitahiru urte nolabait berriz egitea: proposamen bat, eta ea Euskaltzaindiak eta ea jendea zer dioen. Ez da erabakirik hartuko baina proposamen batzuek ere izango da.

Beraz, hilaren 20tik 24era arratsaldero Azentoari buruzko ekitaldi akademikoak izango dira, azkenik asteburuan (25 eta 26an) Euskaltzaindiari luzatuko zaion proposamena zehaztearren.

22 milioitako presupostua

«Unibertsitatetik kanpo»koztaz jo izan diren hiru sail, guztiz helduak agertzen zaizkigu aurtengo ediziorako ere: bertolaritza, antzerkia eta musika.

UEUk urtero jasaten duen leloa diruarena izaten da. Aurtengo aurrekontuak 21.900.000 pezetakoa da. Halere, aurrekontu hori ez dela egiazkoa abisatu behar da, ze kontutan hartu behar baita irakasle gehienek huskeria bat, eta zenbaitek ezer ere, ez dutela kobratzen egindako lanaren truke.

UEUko arduradunek larehun bat ikasleren parte hartzea espero zuten, baina azkeneko gehiago izan dira. Horrek zazpi milioi pezetako diru-sarrerara suposatuko du. Defizita, beraz, ia hamabost milioitakoa izango da, eta dirutza hori nola kitatu ez da gauza segurua. Zulo hori estaltzeko diru espero da Eusko Jaurlaritza, Diputazioak, Udaletxeak, hainbat aurrezki-kutxa eta enpresa pribatuengandik jaso ahal izango dutela, baina Iruñeko ikastaldirako aste pare bat eskas falta zenean, oraindik ez zegoen ezer zehazturik.

UEU ezagutzen dutenek badakite Iruñean egiten dena ez dela muga akademikoaren barruan geratzen, beste osagarri batzuek ere izan ohi direla. Aurtengo kultur ekitaldien programaren barruan Mikel Laboaren kantaldia nabarmentzen da, baita Taupada antzerki-taldearen ekitaldia eta «Susako» Gernika errezitala ere. Bestalde, UEUK ez du Gernikako bonbardaketaren gutunarena ahaztu nahi, eta gai honi buruzko hainbat filme-emanaldi ere izango da.

J.L.